

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea Amurrioko R4/11 lurzatiari dagokion Residencial SAPUR 1 lurzoru urbanizagarriaren sektoreko plan partzialaren 2. aldaketa puntualari**

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 29ko bilkuran, Residencial Goiko Plaza SLren ekimenez izapidetutako Residencial SAPUR 1 lurzoru urbanizagarriaren sektoreko plan partzialaren 2. aldaketa puntuala onetsi zuen. Hona hemen:

“Kontuan hartu da Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko maiatzaren 6an hartutako erabakiaren bidez hasierako onespena eman zitzaiola Residencial Goiko Plaza SLk sustatu duen eta Amurrioko R-4/11 lurzatiari dagokion SAPUR 1 plan partzialaren bigarren aldaketari, eta 20 egunez jendaurrean jarri zela, 2021eko maiatzaren 25ean El Correo egunkarian argitaratuta eta 2021eko maiatzaren 24ko 56. zenbakiko ALHAOn, eta ez dela alegaziorik aurkeztu.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2p) artikulua udalbatzari esleitzen diola hirigintza legedian ezarritako antolamendu plan eta gainerako tresnen udal izapideei amaiera ematen dien erabakia emateko eskumena.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89., 95. eta 96. artikuluetan eta Hirigintza Plangintzaren Araudia onesten duen ekainaren 23ko 2159/78 Errege Dekretuan xedatutakoarekin, aipatutako Legean xedatutakoaren aurka ez doan guztian (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) eta 47.1 artikulua),

eta bat etorri Lurralde Batzordearen irizpenarekin; Idazkaritzaren txostena izanik, eta Udalbatzak, batzordeburuak eta bertaratutako zinegotziek aho batez hala erabakita,

#### ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Behin betiko onespena ematea Residencial Goiko Plaza SL enpresak sustatu duen eta Amurrioko R-4/11 lurzatiari dagokion SAPUR 1 sektorearen plan partzialaren bigarren aldaketari.

Bigarrena. SAPUR 1 plan partzialaren aldaketa hau Arabako Foru Aldundiaren Plangintzako Erregistroa bidaltzea, ALHAOn argitaratu aurretik.

Hirugarrena. Aldaketa Plangintzako Erregistroan gordailutu ondoren, ALHAOn argitaratzea behin betiko onspenaren erabakia eta R-4/11 lurzatiari dagokion SAPUR 1 plan partzialaren bigarren aldaketaren hirigintza arauak.

Laugarrena. Amurrioko R-4/11 lurzatiari dagokion SAPUR 1 plan partzialaren bigarren aldaketa onesten duen behin betiko erabakia Arabako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarietako batean argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, jakin dezaten eta bidezko ondorioak izan ditzan.”

Amurrioko (Araba) R.4/11 lurzatiari dagokion SAPUR 1 sektoreko plan partzialaren 2. aldaketaren ingurumen txosten estrategikoa formulatu zuen (sarrera erregistroa: 4064 zk., 2021eko ekainaren 3koa) Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren 2021eko ekainaren 2ko Ebazpenak. Bertan, funtsean, adierazten da ez dela ebaluazio estrategikorik egin behar; izan ere, ez da aurreikusten Amurrioko (Araba) SAPUR 1 sektoreko R.4/11 lurzatiari

dagokion plan partzialaren 2. aldaketak ingurumenaren gaineko ondorio kaltegarri esanguratsurik izango duenik, baldin eta betetzen badira ingurumen txosten estrategiko horretan ezarritako baldintzak, eta hartzen badira ebazpenean ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak eta horien aurkakoak ez diren eta sustatzaileak planteatu dituen neurriak.

2021eko abuztuaren 20an Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailutu eta gero, hala xedatzen baitu Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 89.3 artikuluan, argitara ematen da ALHAOn, 2004ko otsailaren 6an onetsitako eta argitaratutako hirigintza araudiaren aldaketekin batera.

SAPUR 1 plan partzialaren aldaketa puntual hori behin betiko onesteari buruzko ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek administrazioarekiko auzi erre-kurtsoa aurkez dezakete bi (2) hilabeteko epean, egintza jakinarazi zein argitaratu eta biharamu-netik kontatzen hasita, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan (Barroeta Aldamar kalea 10- 2. solairua, Bilbo).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2021eko irailaren 15a

*Alkatea*

*JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*

## I. ERANSKINA. HIRIGINTZA ARAUAK.

2004ko otsailaren 6ko 16 zenbakiko ALHAOn SAPUR 1 plan partzialaren behin betiko onepenarekin batera argitaratutakoak dira, honako aldaketa hauekin:

### ARAUDI ALDATUA

.../..

#### 4. ERABILERA ETA JABARI BALDINTZAK

\*Etxebizitza kopurua, gehienez:

- "R4/11": 42 etxebizitza.

\*Etxebizitza" erabilerarako gehieneko azalera eraikia:

- "R4/11": 4876 m<sup>2</sup> (s).

\*Merkataritza lokal" erabilerarako (beheko solairua) gehieneko azalera eraikia:

- "R4/11": 165 m<sup>2</sup> (s).